

# Noaqua!!

H A M A B O S K A R I A

2001eko ekainaren 1a VI.urtea

Usurbil, 114. zenbakio





## GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,  
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA  
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.

KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8


GARAGE ITXIAK. KOMUNITATEN ADMINISTRATUAZ.  
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT. ALTURA BEREZIAK,  
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMAÑA ETA LUZERA  
DESBERDINAK. EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU  
PROPIOAREKIN. KOTXEAZ GARBITZEKO LEKUAREKIN.

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK

SARRERAK: 500.000 pezetařik. HILEKOAK: 15.000 pzt.


**MENDIGAIN S.M.** ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21  
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

### GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua



# ISU

POLIURETANOA - PVC - ALUMINIOA  
ATEAK - LEHIOAK - PERTSIANAK  
TOLDOAK



Kale Nagusia, 44 atzeko aldean ■ 20160 Lasarte-Oria  
Tel./faxa: 943 36 64 95 ■ Mugikorra: 670 403770



## TXIMINIA ALTZARIAK



## ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta  
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

## Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Oihana!** Ekainaren 2an 7 urte haundi betetzen dituzunez, muxu haundi bat eta ondo pasa. Etxekoak.



Zorionak larrosa! Ekainaren 1ean zure urtebetetze eguna da, baina ez dugu esango zenuenbat ospatzen dituzun. Ea ba zure kontura zerbait hartzen dugun. Muxu haundi bat zure anaia eta gurasoen partez.



Maiatzaren 29an gure "etxe-koandreak" 5 urte bete zituen. Ez ziren motzak izan azken egunak. Zorionak sorgina eta muxu haundi bat aita, ama eta Xabierren partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu delako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarki jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: ekainak 15  
Ekartzeko azken eguna: ekainak 8

### Ekaina

Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igan.
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31



Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartean badabilkizu edo eta herriko zerbaitaz hitz egin nahi baduzu guk ikamikan foki bat egin-guzuzuegu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noauain argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

## Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40 *	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40 *	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40*	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40*	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

\*Orioraino    \*\*Aiaraino  
 Asteburutan

\*Oriotik    \*\*Aiatik

## Bai, esan?

• Udala	37 19 51
• Udaltzaingoa	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak	37 01 48
• Anbulategia	36 20 13
• Udarregi ikastola	36 12 16
• Udarregi (Kalezar)	36 45 00
• Agerialde ikastetxea	36 38 95
• Oiarde kiroldegia	37 24 98
• Zumarte	37 15 94
• Etumeta	37 20 01
• Taxi gelfokia	36 21 78
• D.Y.A.	46 46 22
• Ertzantza	112
• Suhiltzaileak	112
• Larrialdiak	112
• Anbulantziak	112
• Posta Kutxa	
• Gure Pakea	37 32 28
• Gure Elkarte	37 17 51
• Arrate egoitza	36 63 40
• Eusko Tren	47 09 76
• Noaua! aldizkaria	36 03 21
• Bake epaitegia	37 23 36
• Oa farmazia	36 12 17
• Iturralde farmazia	36 33 95
• Zubietako Herri Batzarra	37 20 77
• Argindarra (Iberduero)	47 09 76

## Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47	06.03	06.20	06.08	06.24	06.39
06.17	06.33	06.50	06.38	06.54	07.09
06.47	07.03	07.20	07.08	07.24	07.39
07.17	07.33	07.50	07.38	07.54	08.09
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17	08.33	08.50	08.38	08.54	09.09
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.20	12.08	12.24	12.39
11.47	12.03	12.20	12.38	12.54	13.09
12.17	12.33	12.50	13.08	13.24	13.39
12.47	13.03	13.20	13.38	13.54	14.09
13.17	13.33	13.50	14.08	14.24	14.39
13.47	14.03	14.20	14.38	14.54	15.09
14.17	14.33	14.50	15.08	15.24	15.39
14.47	15.03	15.20	15.38	15.54	16.09
15.17	15.33	15.50	16.08	16.24	16.39
15.47	16.03	16.20	16.38	16.54	17.09
16.17	16.33	16.50	17.08	17.24	17.39
16.47	17.03	17.20	17.38	17.54	18.09
17.17	17.33	17.50	18.08	18.24	18.39
17.47	18.03	18.20	18.38	18.54	19.09
18.17	18.33	18.50	19.08	19.24	19.39
18.47	19.03	19.20	19.38	19.54	20.09
19.17	19.33	19.50	20.08	20.24	20.39
19.47	20.03	20.20	20.38	20.54	21.09
20.17	20.33	20.50	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.08	22.24	22.39
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	21.09



**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tif. eta faxa: 943 36 03 21  
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net  
Web orria:  
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

**Kazetarien koordinatzailea**

Josu Aranberri

**Kazetariak**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea**

Agurtzane Solaberrieta

**Zuzentzailea**

Eneko Harreguy

**Kolaboratzaileak**

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

**Administrazioa**

Arantxa Usarralde, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

**Erredakzio Kontseilua:**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

**Maketazioa eta diseinua**

Olatz Goenaga, Zaloa Arnaiz eta Ibon Beristain.

**Dokumentazioa**

Idola Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

**Informatika**

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

**Banaketa**

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

**Azala:**

Goiko argazkian gaur egungo udaletxea. Behean 50. hamarkadako udaletxea jai batean.

# EspañETA ez, Euskalerrria bai

Dirudienez, hauteskunde aurreko eraso mediatiko bortitza baretu zaigu azken egunotan. Gu guztiok jan beharrean genituen Aznar, Mayor Oreja, Redondo Terreros eta antzekoak; hauteskunde emaitzak ordea, bakoitza dagokion lekuan utzi du. Eraso terrorista aldiz, lehen, orain, eta zoritxarrez gero ere bere hortan dihardu, herri honen ahotsari entzungor eginez.

Hauteskundetaz egin diren balorazio ezberdinen artean bi izan zaizkit deigarriak. Lehena, Aznarrek eginikoa eta hainbat tertuliano eta sasi intelektualek, morroi zintzo lez, errepikatua: *"Hauteskundeen emaitzak euskal gizartea nahiko heldua ez dela erakusten du, ez dituela askatasunez eta heldutasunez erabakiak hartzen"*. Bigarrena, Arnaldo Otegi eginikoa: *"Ezker Abertzaleak bere proiektu soberanista gizarteak ulertzeko moduan esplikatzen ez du jakin"*.

Bi pertsonaje hauek gauza bera esan nahi dute: euskal gizartea, euskal herritarrok adin gutxiokoak garela, ez dakigula zer erabakitzen dugun. Gu guztiok konfundituta gaudela eta beraiek jarraitzen dutela arrazoi izaten, eta ondorioz, hauteskunde emaitzak gutxiesen saiatu dira. Oraingo honetan, demokraziaren emaitza, oztopo dute. Ez da harrizkoa horrelako pentsakera izatea, zeren azken finean, bi pertsonaje hauek totalitarismoaren iturrietatik edan baitute: batek Franco-rekin, besteak ETA-ren barruan.

Herri hau, ordea, nagusia da eta argi hitz egin du, oso argi. Herri honek BAI BIZITZARI dio, gauza guztien gainetik, gauza guztien abiapuntu gisa, pertsona ororen giza eskubideak errespetatuz. Herri honek BAI ELKARRIZKETARI dio, bai tolerantziari, komunikazioari, elkar ulertzeari, integrazioari, bake bidearen bermea delako. Herri honek BERE BORONDATEAREN ERRESPETUARI BAI esan dio, geroa erabakitze eskubideari bai, etorkizunari bai. Herri honek pertsona guztiekiko ELKARTASUNARI BAI esan dio, bai garapenari, bai gizarte integratu bati. Herri honek EUSKAL ERAKUNDEEI eta azken 20 urteetan eginiko lanari BAI esan dio. Herri honek PROZESU SOBERANISTA errealista bati BAI esan dio. Oso argi eta oso garbi hitz egin du herri honek; beste behin ere, erakutsi du badakiela bere burua defendatzen indarkeriarik gabe, armarik gabe.

Usurbildarrak ez gara arrotz izan batzuk zein besteek buruturiko eraso honen aurrean eta kontsekuenteak izan gara. Zinez baloratu dugu PNV eta Eusko Alkartasunaren ahalegina, herri honen defentsak lehentasuna zuenean, beren diferentziak gainditzen jakin dutelako. Etorkizunari begira ikasgai garrantzitsua: Herria lehenik, alderdia ondoren.

Amaitzeko, ezin dut ukatu, pozik nago. Herri hau ez dago guztiz gaixorik.

**Luis Mari Ormaetxea**  
**Santsiñena**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak




Euskal Herrira!



## Joxe Leon Lizaso Azkonabieta

**Txirrindularitza, sokatira, arrauna... denetik egin du. Kirola beti gustatu izan zaiola aitortzen du eta gaur egun Euskal Presoak Euskal Herrira sokatira taldeko arduradunetako bat da.**



### **Txirrindularitzan ibilia zara. Lasterketetan edo talderen bateko arduradun bezala?**

Nire semeak txirrindularitzan hasi ziren eta orduan hasi nintzen ni ere mundu horretan mugitzen, aurretik txirrindularitzarekiko zaletasun berezirik ez nuen. Ramon Unanue zen entrenatzailea eta gero utzi zuenean Xabier Carballeda. Gero istripu gogor batean mutil bat kamioi batek harrapatu zuen eta atzera jo genuen. Orduetik utzi egin nuen, hamahiru bat urte inguru eman nituen 1984tik 1997-1998 ingurura. Bukaeran geroz eta jende gutxiago zebilen, errepidean ibili behar zen eta arriskua ere hor zegoen...

### **Denbora asko eskatzen al zuen horrek?**

Asteburuetan atzera eta aurrera ibiltzen ginen bai Gipuzkoan eta baita Euskal Herrian ere. Beste batzuetan kanpora ateratzen ginen Espainiako txapelketak zirenean.

### **Zer nolako maila zegoen Usurbilen?**

Oso maila ona zegoen. Tarte batean hutsunea egon zen, baina oso maila ona zegoen orokorrean.

### **Sokatiran ere ibili zinen.**

Bai. Festetan ibiltzen ginen gehienetan, soziedade ezberdinetatik taldeak ateratzen ziren eta urte batean guk irabazi genuen, Mahaspildegikoek.

### **Talde asko ibiltzen al zineten horrelakoetan?**

Orietik eta Aginagatik ere etortzen zen jendea. Zortzi bat talde izango ginen guztira; goizean kanporaketa egin zen eta arratsaldean finala jokatu eta guk irabazi genuen.

### **Orain ibiltzen al zara zerbaitetan?**

Bai. Euskal Presoak Euskal Herrira izeneko sokatira talde bat sortu zen eta laguntzen ibiltzen naiz. Usurbil eta Aginagako hogeitabost mutil inguru dauzkagu eta astean bi entrenamendu egiten ditugu (astearte eta ostegunetan) Aginagako eliza zaharrean.

### **Zer moduz ibiltzen zarete txapelketetan?**

Oraindik ez gara txapelketetan hasi. Sortu zenean, pentsatu genuen herri desberdinak sartzea eta zerbait kobratzea sarrera horrengatik. Horrela herri kirolak bultzatzeko asmoa genuen eta bildutako dirua presoentzat ematea erabaki genuen. Hasierako ideia herri kirol desberdinak egitea zen, baina materiaa zen gure arazorik haundiena. Federaziora joan ginen sokatiran ibili ahal izateko goma eskatzea eta baldintza bezala jarri zuen ordurarte txapelketan ibili ez ginenez, Ligabe izeneko ligan parte hartu behar genuela. Hau maila baxuko taldeak bultzatzeko proiektu bat zen eta guk ez genuen sartu nahi, baina goma behar genuen, milioi erdi balio zuen eta ez genuen dirurik, beraz azkenean sartzea erabaki genuen. Orain ez dakit noiz hasiko garen txapelketekin. Bestela, herri askotatik deitu gaituzte eta itxura eman behar dugu aurten; ongi eta gogor entrenatu eta ahal bada uniformatuta joan. Lehengo urtean kamixetak egin genituen baina aurten ahal bada galtza motzak ere egin nahi ditugu.

### **Bestela, kirolik egiten al duzu gaur egun?**

Orain ez. Lehen bai: arraunean ibilia naiz. Orion ibili ginen eta gero beste bi urtez Aginagan. Aginagatik hiru bandera ekarrita dauzkagu.

**Zure publizitatea hemen jarri nahi baduzu, deitu 943 36 03 21 telefonora!**

IGELTSERITZA

**URDANTZI, C. B.**

Mugikorra: 649435475

649435476

☎ 943 363370- 361439

## TXOKOALDE

Olatz Goenaga



### Udaberriko beroak

**U**daberrian eguna luzatze-arekin batera, beroa dator. Neguko erropa lodi eta ilunak jasotzeko eta udarako erropa arin eta koloretsuak ateratzeko momentua iristen da. Egunean zehar argi gehiago izaten dugunez gure ekintza edo jarduerak egiteko denbora gehiago izaten dugu, batez ere kanpoan egiten ditugunok. Baina eguna ez zaigu pertsonen bakarrik luzatu, izaki guztioi baikizik.

Maiatza bukaeran egin dituen egun bero eta eguzkitsu hauekin, ibai ondora animalia ugari gerturatu da. Dortokak, sugeak eta igelak esate baterako.

Eguzkia hartzen egon ondoren, noizean behin bainutxo bat hartzea eta igerian aritzea gustatzen zaie, beroari aurre egiteko.

Bestalde Txokoaldeko Plantano zuhaitzak, hosto gorritan daude, udazkena izango balitz bezala. Ez dakit, eguraldiarengatik izango den, egin duen negu beroarengatik edo eta gaitzen bat dutelako. Espero dut sendatu edo

hosto berriak aterako zaizkiela laister, bestela zuhaitz hauen itzal preskorik gabe geratuko baikara. Hala ere, badirudi ez dela Txokoaldeko plantanoetan bakarrik gertatzen halakorik, beste auzoetako plantanoak ere horrela aurkitzen omen dira eta.



## KALEBERRI

Ines Kamino



### Batetik atera beste batean sartzeko

**F**esta, jaia, eguna. Herrian ederki ikasi dugu hitz hauei laguna bilatzen. Sagardo Eguna, oraintxe pasatu berria. Pilota jaia, hau berria dugu, eta Santixabel festak, hauen usaina ere dagoeneko sudurzu-loetatik barrena. Halaxe da, batetik atera eta beste batean sartu.

Datorren asteburuan pilota izango dugu nagusi kaxkoan eta berriz ere frontoiak bere berezko zentzua hartuko du, ez futbol zelai, erromeri gune eta sagardo dastaketa toki; pilotaleku baizik. Ostiraletik igandera bitartean pelotazaleek betekada ederra izango dute, bateko pelota partidak, xake, paxaka eta zesta punta saioak eta beste hamaiketako, bertsolari

eta trikitilariekin. Haur zein helduk izango dute tokia lehenengo antolatutako den festa honetan. Gainera, ez da derrigorrezkoa pelotazale izatea, bestelakoak ere eskainiko baititu "Pe-



lota, jalgi hadi plazara" jaiak. Esaterako, igandean bertso-pelota saio ederra izango da, zer den bertso eta zer pelota bereiztea nahikoa zaila izango bada ere. **Xabier Legarreta** eta **Mikel Mendizabal** bikotearen botilero **Irazu** izango da eta **Paulino Ibargoien** eta **Unai Loidi** gidatuko ditu **Ibai Esoainek**. Epailera, berriz, **Xabier Sukia**.

Pelotari lanetan ez dakit nola moldatzen diren hauek guztiak. Bertsoetan eta umorean, berriz, maisuak dira. Beraz, aspertzeko beldurrik ez da izango.

Eta bai, azkeneko lerrotxo hauek omenaldi txiki bat egiteko aprobeztatuko ditut, gure txirrista eta parkea zenari omenaldia.



# KALEZAR

Andoni Udabe



## Uda, barrenak dantzan jartzeko

**U**da garaia gainean dugu ja, hala ez bada ere ez da asko falta. Gure auzoak udan ukitu berezia du, bereziki sasoi honen hasieran. Egun luzeak ditugun honekin batera, inork ez du presarik izaten ohera sartzeko. Hor daude, elkarte inguruko plazako plantano azpian egin ohi diren afariak, tertuliak, juergak. Aurten ere pronto-pronto jarri dituzte mahaiak nahi duenak udako gau izartsuetan kanpoan afaltzeko, freskura hartuz (beno, zerbait esateagatik, batzuetan bai baitaki bero sargori askoak egiten). Garai honetan plantanoen azpian musika berezia izan ohi da. Plup! Hi Txakolin

botila bat atea zak! Plup! Gu sagarduakin ai gaittuk!

Beste batetik Sanjuanak ere gertu daudela eta Jai Batzordeko gazteak buru-belarri dabilta lanean. Aipatzekoa da, gainera, orain gutxi lokal berria eman dietela bilerak



egiteko. Lekua ez dute aldatu, Udarregi ikastola zenean jarraitzen baitute, baina goiko solairuan.

Hor ibili ziren lehengo batean traste guztiak garraiatzen (sofak...). Egia esan behar bada, ez zuten denbora asko igaro aldaketan, morroso galantak dira eta denak. Hor txikirik ez dago izan ere!

Beraz, agerikoa da udak baduela zerbait berezia Kalezarren. Denoi odola irakiten jaritzen zaigu segituan. Beroa ote da? Edota Sanjuanak? Ez dakit, baina hemendik aurrera ez da giro izango inguru hauetan.

# ATXEGALDE

Zaloa Arnaiz



## Txapuzarik ez, eskerrik asko

**A**txegaldeko kronika azkeneko aldiz idatzi nuenetik denbora dexente pasa da. Orduan udalak auzoan eginiko zuhaitz landaketa batzuen berri eman nuen, epe luzerako edo motzerako landatu ote ziren jakin ez arren.

Momentu hartan udala gure auzoaz gogoratu izanaz poztu ginen, batez ere, eraberritu gabe utzi zen lekuaz gogortzeagatik. Dagoeneko zuhaitz hauek betirako bertan landaturik utziko dituztela jakin dut, pozgarria benetan, baina zuhaitz hauek landatzeaz gain, zer demontre egin du bertan udalak?

Txapuzak txapuzeroak egiten dituzte eta, itxura denez, auzo honetan horrelakoak ikustera ohitzen jarraitu beharko dugu aurrerantzean ere.

Egia da Mahaspildegi Elkartearen aurreko kalea nahiko desastre dagoela, baina, mesedez, ingurune hau gehiago izorratu baino lehenago, ez al genuke hobe irtenbide egoki bat bilatzea?

Ingurune honetan arazo bat baino gehiago daude eta ez naiz zein diren esaten hasiko, bertatik pasatzearekin nahikoa eta gehiegi ikusten baita. Ez dezagun utzi biharko gaur egin dezakeeguna.



# SANTUENEA

## Zakurrentzako ere kakontzia

Isaak Muñoz



**S**antuenea baserriko ikuilua bota zenetik denbora asko pasa da. Oraingo gazte batzuek ez dute ezagutu nolakoa zen ikuilu hura. Egia esan, ni ere ez naiz asko gogoratzen, baina gogoan dut bertan lotuta egon zen zakur haundia eta baita bertan katu ugari ibiltzen zirela ere.

Ikuiluak su hartu zuenetik, lur zati hori batere aprobetxatu gabe egon da urte batzuetan. Orain dela urtebete baino gehixeago, makina batzuekin bertako lurrari buelta eman zioten. Orduan auzotar askok galdetzen zuen bertan zer egingo ote zuten. Frontoia, lorategia, parkea... ika-mika ugari izan zen.

Baina inork ez luke pentsatu ere egingo lur hori zakurrentzat "kakontzi" bezala erabiliko zenik. Itsusia badirudi ere horretarako erabili baitute.

Egurrezko kartel dotore bat jarri eta paper batzuk ipini dituzte bertan, lur horiek zaku-



rrek beren eginbeharrak egiteko direla azalduz eta beste lorategiak ahalik eta garbien mantentzeko eskatuz. Kakak botatzeko ontzia eta plastikozko poltsak ere jarri dituzte.

Badakigu auzoan zakur ugari bere kontura ibiltzen dela, jaberik gabe. Beraz, eta irakurtzen ez baldin badakite, behintzat, nahi duten tokian egingo dituzte egin beharrekoak. Egia esan ideia ez da batere txarra, baina plastikozko poltsak denbora luzean ikutu ere egin gabe izango direla uste dut nik, behintzat.

Eta orain beste galdera bat daukat, katuentzat zer? Izan ere gure auzoan zakurrak baino ugariagoak dira katuak.

# URDAIAGA

## Itzaletik uretara

Eider Jauregi



**U**dara giroan sartuak gaude ja, aurreko astebukaerari begiratzea besterik ez dago. Auzoko parkea leporaino beterik zegoen. Egia da



askok hondartza nahiago dutela bainu bat hartzeko aukera ematen baitu, baina gure parke honek badu hondartzak ez duen gauza bat: itzala.

Azken egunotako beroa jasanezina izan da eta itsasoko urak oso epelak ez daudenez, hobe itzaletik ibiltzea, bestela...

Itzala aipatzearekin batera, gure auzotik Andatza bidean dagoen

pinudia ateratzen hastera doazela gogoratu naiz. Hauek ere itzal galanta ematen digute, baina errepidez beherakoa ateratzen dutenean kontu haundiagoz eta lasaiago ibili beharko dugu. Orain arte azkar xamar joanez gero, bagenekien beherantz erortzean zuhaitzen batek geldituko gintuela, baina hemendik aurrera ez da horrelakorik egongo. Bukatu dira gure segurtasun neurriak, goitik behera abiatuz gero, presan bainu bat hartzeko aukerarekin topatuko gara. Badakizue, itsasorik ez baina putzu galantak baititugu.



# AGINAGA

Maria Angeles Arruti



## Sendotza bai, baina jaunartzerik ez

**A**pirilaren 29an argazkian azaltzen den laukoteak (**Oskar Santamaria, Eneritz Esnaola, Ainara Errasti eta Jaione Bereziartuak**) sendotza hartu zuten **Juan Mari Uriarte** gotzai jaunak emandako mezan, gure erretore den **Luis Aranalde** lagunduta.

Usurbilgo eliza gaztez gainezka izaten da sendotza egunean. Aginagan, gutxiago izanagatik, halakoak ere ez ditu ahazten. Oso giro alaia izan zen eta gure laukote honek egun berezi hori gogoan izango duela uste dut.

Elizatik atera gabe, bertako

kontuei eutsi behar diet oraingoan. Sendotza bai, baina aurten ez dugu jaunartzerik izango. Ohiturak agindu bezala ekaineko lehenengo igandean izan ohi den ospakizunik gabe gara, beraz, oraingoan, jaunartzeko umerik ez dagoelako herrian.



Bide batez, tartetxo hau aprobetxatu nahiko nuke gure apaiza den Luisi zoriontzeko, datorren ekainaren 4an ondo-ondo ospatu dezan bere urtebetze eguna.

# ZUBIETA

Olatz de Migel



## Bere txikitasunaren xarma mantenduz

**G**auza gutxi dago kontatzeko azkenaldi honetan Zubietan gertatutakoaz, edo ezer nabarmenik ez, behintzat. Elizak obretan darrai eta berau konpontzen noiz bukatuko duten ere ez dakigu. Zubietako festetarako, behintzat, dotore-dotore egongo al da!

Ezetz dirudien arren, eta eguneroko bizitzaren bizkortasunak oharreza zailtzen badigu ere, Zubieta pixkanaka aldatuz doa, gainontzeko gizarte guztiaren antzera, eraldatuz doa gizartearen behar eta nahien arabera, beti ere bere txikitasunaren xarma mantenduz. Laster (edo auskalo noiz) plaza ondoan etxe ugari egiteko

asmoak, bide hau hemendik zabaltzeak edota bide nagusia lehen zenaren toki beretik eramana nahi izateak, eta zergatik ez, giza-harremanek berdiek ere gaur egungo Zubieta duela 50 urteko Zubietaz desberdindu egiten dute.

Beharbada garai batean bizitzaren erritmo lasaiago batek herritarren arteko hartu-



emana errazten zuen. Gaur egun, gainontzeko leku askotan bezala, egunean eguneko egitekoen presak herritarren harremanak ekintza edo une zehatz eta konkretuetara mugatzen ditu. Egunaren zati handiena, lana, familia, lagunak edota ikasketak direla eta, herritik kanpo egiten ditugu eta hori nabarmentzen da elkarren arteko erlazioetan. Askok eta askok herrian egiten dugun denbora momentu oso konkretuetara murrizten baita. Eta bestela, astean zehar herrian igarotzen dituzuen orduak kontatzea besterik ez duzue, horretarako denborarik aurkituz gero behintzat!

# Irisasi-Andatzaren erabileran parte hartu nahi eta ezin



**N**ork esan du Irisasi usurbildarrona dela? Ez da gutxiagorik ere. Gure mendirik altu eta zabalene-naren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku dago. 1998. urtean mendi hau kudeatzeko plan teknikoa onartu zen eta usurbildarrak kezkatu azaldu dira plan horren aurrean. Batzuk mendi honen erabilera antolatzeke eskubidea aldarrikatuz firmak biltzen hasi dira, udalak, berriz, Foru Aldundian herritarren hitza entzun araztea du helburu nagusia.

Gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mendi Patrimonial modura izendatuta badago ere, betidanik izan da Irisasi herri mendi bat; hori egiazta-tzen duten bi morrontza mantentzen direla ikusi besterik ez dago: larrerako morrontza eta ur hartune baterako morrontza. Hala ere morrontza honekin ez dira asetzen usurbildarron nahiak. Garai batean larreak eta garoa premiazoak baziren, gaur egun nekazaritza beharrez gain beste premia batzuk ere badaude: behar turistikoak (garai bateko zeta lantegia, piszifactoria zaharra, erro-tarriak egiteko kantera...) eta

herritarren beharrak (aisialdirako ibilbideak, berdeguneak, basoaren zainketa...).

Foru Aldundiak 1998an onartu zuen 10 urtetan Irisasi kudeatzeko plan teknikoa eta behar hauek ez dute nahi beste-ko erantzunik jaso. Guzti honen inguruan halako kezka bat sortua da dagoeneko. Izan ere, herri ekimen baten bidez firmak biltzeari ekin diote. Hona hemen, talde honek udalari zuzenduriko eskaera:

*"Gipuzkoako Foru Aldundiak daraman baso ustiaketak ez gaitu konbentzitzen:*

*- Ez baitu Irisasik duen benetako balioa baloratzen: ekologikoa (bioaniztasuna, berezko basoa), kulturala, aisialdikoa, paisaia...*

*- Ez baitu kontutan hartzen usurbildarrok dugun eritzia.*

*Usurbildarrok Irisasiren erabilerara antolatzeke eskubidea eta betebeharra ere badugu. Udalak gai honetan arduratu daitekeen teknikari bat baduela jakinda, hau benetan gauzatu dadin eta Irisasi eremuak herritar guztien artean adostutako etorkizuna izan*

*dezan behar diren ekintzak bideratu ditzala eskatzen diogu udalari".*

Izan ere, Irisasi Usurbilgo udalerrian badago ere, jabetza Foru Aldundiarena da. Horregatik, momentu honetan herritarrak ezin du bere mendia kudeaketan parte hartu. Hala ere, plan teknikoa egin zutenetik udala eta Foru Aldundiaren artean harreman bat badago. Udalean nekazaritza arloan lanean ari den teknikaria plan hori aztertzen ari da, eta Foru Aldundiari zenbait eskaera egin bazaizkio ere, aurrerantzean Irisasi mendian herritarren nahiak betetzeko aukera egongo litzatekeelakoan lanean dihardu.

Plan horren arabera etorkizunean ere pinua nagusi izango omen da Irisasin. Pinu ekoizpenean oinarritutako basogintza ikuspuntua du Foru Aldundiak, eta hortik ahalik eta etekinik haundiena ateratzea da beren asmoa. 10 urtetan (1998-2008) 778.698.500 pezetako diru sarrerak eta 362.793.811 pezetako diru irteerak aurreikusten dituzte.





**Xabier  
Orbegozo**

**Udaleko  
nekazaritza  
batzordeburua**

**Gaur egun Irisasi Foru Aldundiaren mendi patrimonioa bezala izendatua dago. Baina udalak zer eskubide ditu?**

Irisasi Gipuzkoako Foru Aldundiarena da eta herriak ez du inongo indarrik, ez du eskubiderik. Hala ere, udalak mendiaren kudeaketan partehartu ahal izateko bide bat ireki nahi du. Zer bide jorratu eta nola bideratu atzertzen ari gara eta horiek ondo aztertzen

direnean ikusiko dugu zer egin.

**Irisasiren inguruan zein da udalaren planteamendua, zein dira helburuak?**

Lehenik eta behin herritarrek dituzten eskaerei ahal den egokien erantzutea. Alde batetik baserritarrek abereentzat larreak eskatu dituzte eta eskaera horri aurre egiten saiatu gara. Beste aldetik, Irisasin gaur egun pinua nagusi bada ere, beste motako zuhaitzak, hostozabalak adibidez, ahalik eta gehien landa ditzaten saiatuko gara. Bideak ere hor daude. Egurra ateratzerakoan kamioi ugari ibiltzen direnez pista asko egoera txarrean daude eta beste batzutatik, berriz, ezin da pasa. Horregatik, hauek konpon-

du ditzaten ahaleginduko gara. Azkenik behar turistikoak daude, ezin baitira ahaztu Irisasin dauden garai bateko zeta lantegia, errota-harriak egiteko kantera...

**Hala ere Foru Aldundia eta zuen arteko hartueman bat badago ezta?**

Irisasiren kudeaketan herriaren hitza kontuan hartzea izango litzateke egokiena, baina gauza horiek ondo aztertu beharrekoak dira. Orain arte, beraien kudeaketa planean dauden zenbait gai jorratu ditugu. Adibidez, larre eskaera haundiagoa egin dugu, eta bideak konpontzeko eskaera ere egin dugu... Arazorik haundiena basoaren kudeaketan izango dugu.



**Santos  
Jauregi**

**Igartzazabal  
baserriko  
abeltzaina**

**Foru Aldundiaren kudeaketa planaren inguruan zer bait esatekorik bai?**

Hori bere osotasunean aurrera eramanez gero zer bait izango litzateke, baina hor jartzen duena betetzea zaila iruditzen zait. Guk larrea behar dugu. Gaur egun nire ardientzat astebeteko jana dago Irisasin, eta janik gabe hazienda edukitzea alferrikako lana da, zuhaitzak aldatu besterik

ez dute egiten. Plan horretan larrea izango dugula azaltzen da, baina orain arte Foru Aldundiak mendi honetan gure alde ez du ezer egin. Udala zer bait lortu asmoz mugitzen hasi da, eta bada zer bait. Zain gaude baina agian berandu izango da.

**Ganaduentzat larrea jartzeko ahaleginik egin al dute Irisasin?**

Hasieran 30-35 Ha. ixten hasi ziren, baina guk espetxe batean ardiak ezin direla sartu esan genien. Gero pista nagusia ixteko eskaera egin bagenuen ere hura ez zuten onartu. Birlandaturako zuhaitzak dauden lekuak ere itxi egin dituzte... azken finean Irisasin ez dago ardientzako janaririk. Orain arte, gaur egun Bedaiora

eraman behar izaten ditut, Irisasin eduki izan ditut ardiak, baina beti ibili gara gaizki. Neguan irabazitako udaran Irisasin galtzen dute gure ardiek.

**Zer egin du horren aurrean Foru Aldundiak?**

Irisasiren egoera txarra dela badakite, baina haziendarik egotea ez zaie interesatzen. Guk ardiak salduko bagenu izugarrizko poza hartuko lukete. Egurra ateratzea beste interesik ez dute. Zuhaitzak landatzen dituztenean aurreneko urtean inguru hura garbitzen dute, bigarren urtean gutxiago, hirugarrenean ere bai eta azkenean dena sasiak hartuta gelditzen da. Irisasi sasiz bete dagoela esan daiteke.



**Koldo  
Huegun**

**Firma biltzen  
dabilenetako  
bat**

**Zer dela eta hasi zarete sinadurak biltzen?**

Kezka bat zegoen Irisasi mendiarekin. Zuhaitzak moztzen hasi ziren, baina direnak eta ez direnak moztzen zituzten, legeak onartzen ez dituenak ere egiten dituzte. Zuhaitzak moztzerakoan, balio ez dutenak pilatu eta erre egiten dituzte. Horietako batean suaren kontrola galdu zuten. Jende askok honen berri ez badu ere ia Irisasi

osoa erretzeko arriskuan egon zen. Honen aurrean zer bait egin beharra zegoela eta hiruzpalau pertsonak zenbait bilera egin genituen eta sinadurak biltzea erabaki genuen. Jendeak Irisasirengan kezkarik baduen ala ez jakin nahi genuen eta udalari hori jakinarazi.

**Eta kezka hori ba al dago?**

Baietz uste dugu. Niri behintzat Irisasi mendia usurbildarrek kudeatu behar dutela iruditzen zait. Herriak nahi badu, presioa eginez kudeaketa horretan parte hartu dezakeela iruditzen zaigu. Foru Aldundiaren kudeaketa plana %90 ustiapenerako da eta ez du jasotzen ez aisialdirakoeta kirolerako gunerik... Nik uste dut denon artean zehaztu beharreko plana

dela, bai ganaduzaleek, kirolariek, natura maite dutenek... parte hartu behar dute plan hori egitekoan. Zer bait ezberdina egin daiteke denon artean, herritik hobeto ikusten baitira gauzak.

**Foru Aldundiak daraman baso ustiaketarekin ez zaudete ados.**

Beraiek pinuaz gain frondosak landatuko dituztela esaten dute, baina bien bitartean herritik Irisasira begiratzean dagoen hutsunea Irisasin bertako basoa landatutako basoari gailendu zaion leku bakanetariko bat zen. Hauek bota egin dituzte beste batzuk landatzeko. Zergatik bota lehen baldin bazeuden. Askotan legea ez dute betetzen, Gorostiak ere bota egiten baitituzte.

## Gizarte Zerbitzuetako eskumenen banaketan udal autonomia eza salatu du udalak

**P**asa den maiatzaren 29an egin zen udalbatzan Gizarte Zerbitzuetako eskumenen banaketaren inguruan Euskal Herritarrok taldeak aurkeztu zuen mozioa onartu zen. Gipuzkoako Foru Aldundiak banaketa hori zehazteko dekretua egiterakoan eman den udal autonomia eza salatu nahi du udalak.

Gizarte Zerbitzuak aurrera eramateko Foru Aldundiko Gizartekintza eta Gipuzkoako udalen artean sinatutako hitzarmenaren balioa 2000ko abenduaren 31n amaitu ondoren, Gizarte Zerbitzuetako eskumenen banaketa zehaz-

ten duen dekretua onartu zen. Eskumen banaketa hori egiterakoan udalak kontuan ez dituztela hartu salatu dute herriko ordezkariak. "Nahiz eta udalen gain eskumen ugari gelditu, udalek aztertzeke, proposatzeko eta erabakitzeke daukaten eskubidea zapaldu eta bereganatu dute".

Udal guztiek errealitate berdina ez dutenez, ez finantziazioari dagokionez ezta beharrei eta eskaerei dagokionez ere, Gipuzkoako herrietako errealitate ezberdinei erantzun egokia bilatzeko bitartekoak jartzea eskatzen dio udalak Foru Aldundiari. Horrez gain,

udalek dekretu horretan ezartzen zaizkien eskumenak aurrera eraman ahal izateko finantziaziorako Foru fondo bat eratzea eskatzen da, Gipuzkoako herritarren eskubideen inguruan eman daitezkeen ezberdintasunak ezabatuz eta bigarren mailako herritarrak egotea ekidinez.

Azkenik, Foru Aldundiaren eta udalaren artean, eremu teknikoan eta politikoan, komunikaziorako, solaserako eta adostasunerako sei hila-beteko aldizkotasuna izango lukeen egitura iraunkor bat sortzea eskatzen da.

## Sindikatu parean aparkaleku gehiago

**S**indikatuak dagoen lekuan etxebizitzak egiteko lizentzia emana badago ere, Ugarte industrialdean sindikatu berria eraiki bitartean ezingo dira lanean hasi. Horrez gain, Errekondonea, Pattonea eta Tomasenea atzean dauden lurak bereganatu ditu udalak bertan aparkaleku publikoa egin asmoz.

Hitzarmena egin dute dagoeneko. Hiru etxe hauen aurrean dauden txabolak eta baratzak dauden lurretan aparkaleku publikoa egitea da udalaren asmoa. Sindikatu aurrean etxebizitzak egin behar dituen kontratistarekin ere akor-

dio batera iritsi dira eta etxebizitzak egiterakoan aparkaleku hauek ere berak egingo ditu. Honekin batera, aparkaleku publikoaren azpian egingo duten aparkaleku pribatua haunditzea ere hitzartu dute.

Etxebizitza hauek ez dituzte oraindik egingo, izan ere Ugarte industrialdean sindikatuarentzat eraikuntza berria egin bitartean ezingo dute

lanean hasi. Udal ordezkarien arabera etxebizitzak egiten hasterako urria edo azaroa izango da.



### ERRAZKIA

Igeltseritza  
orokorra

Kale Nagusia, 1  
Telf: 943 37 26 79 eta 36 51 25  
Santueña Mob: 629 42 05 65



### WITZANGA

HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17



Pinturas  
Ion



943 83 09 37 ☎ 670 397504



## Ekainaren 10ean inauguratuko da "Askatasun plaza"

**P**aris atzean egin duten parkeari "Askatasun plaza" izena jartzeko erabakia hartu dute herriko ordezkariak. Baina ez da hori hainbeste zeresan eman duen parke honen inguruan hartu den erabaki bakarra, datorren ekainaren 10ean egingo baita inaugurazio ekitaldia.

Pasa den urteko uztailean hasitako lanak ia amaituta daude Paris atzeko parkean. Azken orduko lan txiki batzuk besterik ez dira falta, baina orain duen itxura berberarekin ikusiko dugu datozen urteetan. Bolatokia, haurrentzako jolas-tokia eta merkatua eta beste-lako ekitaldiak egiteko leku estalia erabiltzeko prest daude ja. Inaugurazio ekitaldia ekainaren 10ean izango bada ere, azken asteetan jende ugari ibili da parkean. Haurrak jolastoki berriari ibiltzen dira dagoeneko eta herriko gazteak gauetan bolatoki

gainean egotea gogoko dute.

Inaugurazio ekitaldirako egitarau xumea prestatu dute. Eguerdiko 12.00etan "Askatasun plaza" izena daraman plaka jarriko dute dantzari eta txistularien laguntzarekin eta ondoren hamaiketako izango da. Amaitzeko, Gipuzkoako Bolo Federazioak antolatuta bolo txapelketa jokatu da bolatoki berrian.

Izan ere, "Askatasun plaza" izango da parke berri honen izena. "Arizti" edo antzeko izenen bat jartzekotan ere egon dira herriko ordezkariak, baina azkenean izen hori jartzea erabaki dute. Agustin Lizaso alkatearen esanetan plaza berri honek herriko kaxkoa askatuko duelako eta gainontzeko kale eta plazak herriko pertsonaia edo leku izenenak direlako plaza berriari "Askatasun plaza" izena jartzea erabaki dute.



## Motzean

### Atalluko partzela salduko du udalak

Duela hilabete batzuk udalak Atallu industrialdeko sei lurzati-etatik bat hartzea erabaki zuen. Beste bost zatiak zenbait enpresek erosi zituzten eta seigarrena udalaren esku gelditu zen. Pasa den maiatzaren 29ko udalbatzan partzela hori saltzeko erabakia hartu zuten. Lurzati hori eskuratu nahi duten enpresentzat lehiaketa bat irekitzeko oinarriak onartu dira dagoeneko eta hemendik hilabete batzuetara jakingo dugu zein enpresak hartuko duen Atalluko azken partzela.

Herriko enpresa batek lurzati hori eskuratzeko interesa agertu du ja. Txokoaldeko Berriola Kooperatibak lantegia haundiagotu nahi zuela eta Usurbilen horretarako lekurik ez zegoela jakinarazi zien herriko ordezkariak. Horregatik, honi irtenbideren bat eman nahian Atalluko industrialdeko partzela saltzea erabaki du udalak.

### "Usurbil: iraganari begiratzuz"

Udalean lanean aritu diren bi historiariek jasotakoarekin udalak hiru liburuxkaz osatutako "Usurbil: iraganari begiratzuz" lana argitaratzeko asmoa du. Herriko etxe guztietara banatuko diren buruxka hauetan XVI. mendetik XIX. mende bitartean ekoizpen, erlijio eta egitura sozial mailako datuak agertuko dira. Santixabelak baino lehen banatuko da lehen liburuxka.

ITURGINTZA

JOSEBA ARANGUREN

Telf: 943 36 43 64

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea

Fatxaden konponketa



Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67

Kale Nagusia, 10  
USURBIL  
Tlf. 943 37 33 40  
943 37 09 11

LABE-GOXO

## Frontoi atzeko parkea hutsik gelditu da bertako aparailuak kendu ondoren



**O**rain bai ez ditugula frontoi atzean zeuden burdinezko aparailuak gehiago ikusiko. Aurreko alean bertan zegoen jolastokia kendu behar zutela aurreratu genuen eta baita kendu ere. Pasa den maia-

tzaren 22an kendu zuten herriko langileek posta bulego aurreko aparailuetako bat eta hurrengo egunean, berriz, txirristra haundia, txikia eta hauei lotuta zeuden eskilara guztiak. Hemendik aurrera, datozen hilabeteetan zerbait

jartzen ez badute behintzat, paisaia berri bat aurkituko dugu parkera joaten garenean: parke hutsa. Izan ere, zenbait hobekuntza egin eta plaza hau dagoen bezala uztea da herriko ordezkarien asmoa.

## Udarregi ikastolaren eguna ekainaren 3an

**U**darregi ikastolaren eguna ekainaren 3an izango da aurtengoan. 14 urte pasa dira eraikuntza berriaren inaugurazioarekin batera lehen ikastola eguna ospatu zenetik eta aurten ere ekitaldi dexente antolatu dituzte. Pasa den maiatzaren 30ean 5 urteko eta Lehen Hezkuntzako 5. mailako haurren kontzertua izan zen elizan eta maiatzaren 31n, berriz,

gustura idazteko baldintzak, idazkera harmonikoak nola bideratu eta grafia eta nortasunaren arteko loturak ezagutzeko aukera izan zen Irune Ibarra psikologo eta grafologoak eman zuen hitzaldian.

Egun haundia, ordea, ekainaren 3an izango da. Goizeko 9.00etatik aurrera herriko txisturiak ibiliko dira kalez kale eta ordu berean hasita LH eta

DBHko ikasleen jokoak izango dira 11.30ak arte ikastola aurreko plazan. 11.00etatik 13.00etara HH, LH eta DBHko ikasleen eskulanak ikusi ahal izango dira ikastola berrian eta 12.00etatik 13.00etara Haur Hezkuntzako haurrek "Garraioak" emanaldia eskainiko dute Oiardo kiroldegian. Bukatzeko, herri bazkaria izango da herriko frontoian trikitilari eta guzti.

# GALARRA GARRAIO

\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46



Beheko kalea. 4  
Telf: 943 36 57 42

## ALKORTA AUTOZERBITZUA

FRUTAK  
BARAZKIAK  
ETXEKO PRODUKTUAK  
KONGELATUAK



# Haurren pelota txapelketako finalak

**D**atorren ekainaren 3an, igandean, jokatuko dira eskualdeko haurren txapelketako azken partiduak. Goizeko 10.00etan hasita bost partida izango dira herriko frontoian:

Benjaminak B maila

Arruti- Untzalu-Perez (Andoain) aurka  
Esnaola-Altuna-Lazkano (Hernani)

Benjaminak A maila

Gaztañaga-Aizpurua- Jauregi (Andoain) aurka  
Ituarte-Artetxe-Ortega (Lasarte)

Alebinak B maila

Gabilondo-Fagoaga (Urnieta) aurka  
Furundarena-Arillaga (Usurbil)

Alebinak a maila

Eskudero-Narbarte (Goizueta) aurka  
Irastorza-Zinkunegi (Usurbil)

Infantilak

Esnaola-Egia (Andoain) aurka  
Larrañaga-Uzkudun (Azpeitia)

Antolatzaileek txapelketa honetan laguntza eman duten guztiak eskertu nahi dituzte, batez ere Iruin, Araeta, Aialde berri, Aginaga eta Saisar sagardotegiak.

Bestalde, datorren ekainaren 8an, igandean, gaueko 22.00etan hasita Herri Arteko pelota Txapelketako final laur-

denetako joaneko partidak jokatuko dira herriko frontoian. Bertan usurbildarrak eta azkoitiarrak izango dira aurrez aurre.

Usurbildarrei dagokionez, **Jon Irazustabarrena** eta **Ibai Orenak** jokatuko dute kadete mailan, **Asier Portu** eta **Asier Arrutik** jubeniletan eta heldue-tan bikotea erabaki dago oraindik. Izan ere, atzelaririk gabe daude aurten, eta **Enrike Huizi**, **Xabier Errasti** eta **Jabier Sancho** aurrelarietatik bik jokatuko dute partida hau.

Itzuliko partidak, berriz, ekainaren 15 edo 16an jokatuko dira Azkoitiako frontoian.



**O**raindik inor lurperatu ez badute ere pasaden maiatzaren 19an inauguratu zuten hilerri berria. Luciano Paguegi arkitektoak eraikitza berri honen nondik norakoak azaldu zituen bertaratu zirenek hilerria ikusiz ibilalditxo bat egiten zuten bitartean. Ondoren, herriko erreto-reak bedeinkapena eman eta hamaietako egin zuten. Berrikuntza modura herritar bat hiltzen den bakoitzean argi bat piztuta egongo da egun batez bertako dorre altuenean.



"Plis plas txalo ta jolas" egitaraua bere azken txanpara iristen ari da. Maiatzaren 26an Santuenean Telmah taldearen "Lehoi baten bila" antzerkiak gozatzeko aukera izan zuten etxeok txikienek. Aginagarren txanda maiatzaren 19an izan zen. Kalezarren, ordea, zita bikoitza egongo da. Izan ere, ekainaren 17an Auskalo taldearen ikuskizunaz gozatzeko aukera izango baita eta ekainaren 17an Takolo, Pirritx eta Porrotzek emango baitiote bukaera aurtengo egitarauari.




## MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

*Udaberriko moda berria zuretzat!*

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06



## Urtinea

*Loreak - Lore landareak*

*Lore sortak - Koroak*

San Esteban  
Tlf.: 943 36 22 55

## Zenbat alkate ditugu usurbildarrok?

**A**zken udal hauteskudeetan alkate hautatutako Zendoianeko Joxe Antonio Altuna 2.001 urte honetan kargua betetzeko gaitasunik gabe utzia du epaile baten aginduak. Bere ordeztan, alkate lanak larbeko Agustín Lizaso betetzen ari da.

Badugu Usurbildarrok, hala ere, beste alkate bat: Ferrolgo Francisco Franco Bahamonde. Joan den mendean 35 urteko diktadura bortitza ahalbideratu eta zuzenduz hego Euskal Herria bezalaxe Usurbil aspaldiko zapalkuntza gogorrean ito zuen militarra Usurbilgo Udalak "Ohorezko Alkate" izendatua du. 1.949ko abuztuaren 22an egindako osoko bilkuran txalo joz aho batez onartu zuten garai hartako zortzi zinegotziek alkateak proposatutako izendapen hau. Ez zien begirune handirik hamar bat urte lehenago diktadoreak eragindako gerran hilak,

fusilatutako, erbesteratuak, etab makina bat usurbildarrek sufritutakoari. Erabakia hartu zenean ere gure herriak pairatzen zuen zapalkuntza ere ez zen nolana izango.

Hau da hau alkatezaren panorama Usurbilen. Herriak hautatutakoa kargua betetzeko gaitasunik gabe utzia eta inork gutxi nahi lukeena berriz ohorezkoa, betirako alkate izendatua.

### Antzeko oroigarri asko

Gezurra badirudi ere oraindik aurki daitezke Usurbilen Franco diktadorearen garai mingotsak gogora arazten duten seinaleak. 1.998ko



azaroaren 13ko Noaual aldizkari honen 54. alean Zalao Arnazek Atxegaldeko bere kronikan salatu zuen: "Frankismo garaiko ikurrak oraindik gure artean" izenburu esanguratsupean. Bertan auzo horretako etxepeetan falangearen oroigarriak dauden uztarria eta azkonei buruz honela zioen: "Ez dugu zertan etxetik ateratzen garen guztietan horrelako irudi iraingarriak ikusten jarraitu behar. Dagokionak, Udala edo bizi-lagunek egin beharrekoa egin dezatela". Atxegalden bakarrik ez Santuenean, kaleberrin, etab. herriko txoko ugarritan aurki daitezke arrasto hauek.

Antzeko arrazoiak medio, Goierritarra aldizkariak bere azken alean argitara emana du matxinadara deitzen



FOTOCAR argazkiak



duen Euskal Herriak Intsumisioa taldeak bere gain hartu berria duen ekintza; bertan Goierri guztian kendutako falangisten 130 plaka erakusten dira.

## Frankoren garaiak gogoan

Franco eta bere garaiak bezala antzeko diktadura eta zapalkuntzak oroitarazten dizkigute kaleberriko izen bartzuk. Espainiako inperioaren izenean Filipinetako herritarrek zapalduz aberastu eta gure elizaren dorrea eraikitze-ko dirua igorri zuen Etxebes-teren izena hor dugu oraindik, usurbildarron lotsagarri, herriaren erdi-erdian. Kale hau eta udaletxea lotzen dituen Irutasun kaleak mende luzetan eliza kristauak herri honen kultura, izakera eta nortasuna nola zanpatu duen ez digu ahazten uzten.

## Proposamena

Nere iritziz, kale izendegi berria egin zenean Luis Soroa izena "San Esteban bidea" berriagatik aldatu zen eran Francoren alkatetza eta kaleen izen iraingarri hauek aldatu beharra dauzkagu, baldin eta usurbildarrok lotsaren arrastorik badugu.

Aldaketa hauek egiteko udaletxeari proposamen bat egin nahi diot: Francori alkatetza kendu eta kaleei izenak aldatu behar al zaizkien eta hauek gauzatzeko arrazoiak emateko aukera jartzea herritarrei. Gero, egunen batean aldaketa hauek gauzatzen badira udal-erabakiaren aktan denak, aldekoak eta kontrakoak jaso eta historia, benetako historia egiten has gaitezten.

**Jakoba Errekondo**

# Franko ohorezko alkatea izendatu zuteneko akta

Sesión plenaria extraordinaria en homenaje a S.E. el Jefe del Estado

En la Villa de Usúrbil a veintidós de agosto de mil novecientos cuarenta y nueve y en el Salón de Actos de la Casa Consistorial, siendo las diez y ocho horas y bajo la Presidencia del Alcalde Don Francisco Calparsoro Múgica, y con asistencia de los señores concejales que al margen se exponen (Julian Mugica Otaegui, José Gorriti, Manuel Echaveguren, Antonio Echeverría, Miguel Arrillaga Izaguirre, Antonio Aranguren, José Udabe Albizuri) y que son los que en su totalidad componen la Corporación Municipal, se reunió el Ayuntamiento en pleno y sesión extraordinaria, expresamente convocada al efecto con las formalidades prevenidas por la ley.

Asistió también el Secretario de la corporación Don Alfonso Elorza actuando como tal, y, abierta la sesión por el Sr. Presidente, procedió a la lectura del Acta de la sesión anterior que fue aprobado por unanimidad.

Seguidamente, manifestó el Sr. Alcalde Presidente que, como sabían los Sres. Concejales, la sesión tenía por objeto proceder al nombramiento de Alcalde honorario de esta N. y L. Villa de Usúrbil, a S.E. el Jefe del Estado, Don Francisco Franco Bahamonde. No hace falta - dijo - encarecer los méritos de S.E. en su tarea de liberación moral y material de España, de las hordas comunistas e ideologías desintegradoras de la unidad de la Patria; de su inmensa labor social y de dignificación de

todos los españoles. Todo esto - añadió - bien lo saben los señores que forman esta Corporación que presido; pero hay algo más que resaltar en la personalidad de S.E. el Jefe del Estado: su destacadísimo interés por todas las cosas guipuzcoanas, como habéis podido observar en las recientes concentraciones de Azpeitia y Eibar; por los productos, ya agrícolas como en Tolosa el pasado año visteis, por los marinos, y por los industriales. Esta manifiesta inclinación alcanza a nuestra Villa de Usúrbil cuyos productores agrícolas e industriales tanto tienen que agradecer a S.E., no solo por su interés general por ellos manifestado en multitud de disposiciones legales, sino por su atención particular a los problemas guipuzcoanos. Por ello - concluyó - propongo a la Corporación nombre Alcalde honorario de Usúrbil a Don Francisco Franco Bahamonde Jefe el estado Español.

La propuesta del Sr. Alcalde Presidente fue aprobada por aclamación, y en consecuencia, quedó nombrado Alcalde honorario de Usúrbil D. Francisco Franco Bahamonde Jefe del Estado Español. Acordándose así mismo comunicar este acuerdo al Excmo. Sr. Gobernador Civil de la Provincia remitiéndole Certificación de este Acta.

Y, (sin más) cumplido el objetivo de la convocatoria, se levantó la sesión, siendo las diez y nueve horas, de lo cual y del contenido de la presente Acta yo el Secretario doy FÉ.

# Sagardoa eta giro bikaina nagusi

## XX. Sagardo Egunean

**F**esta giro aparta, plaza gainezka, jendea non-nahi, sagardo botatzaile ugari, sagardoa usurbildar eta gainontzekoentzat errege... XX. Sagardo Egunak erabateko arrakasta izan du beste behin ere. Eguraldiak lagunduta jende ugari hurbildu zen goiz partean Gipuzkoako 45 sagardotegietako sagardoak edatera. Arratsaldean, berriz, erromeri giro aparta sortu zen Tapia eta Leturiarekin.

"Iaz baino mila baso gehiago saldu dira aurten" zioen antolatzaileetako batek goizeko saioa bukatu bezain laister. Ez da harritzekoa, jende ugari bildu baitzen herriko plazan. 45 postutan banatuta zeuden 5.400 botella sagardoak ez ziren nahikoa izan Usurbila gerturatu ziren denak asetzeko. "Haurrekin plazara sartu ezinik ibili gara" entzun zitekeen frontoiko sarreran, eta postu bate-



tik bestera ibiltzerakoan jende artean lekutxo bat egitea ere lan nekeza zen maiatzaren 20an.

Hasierako ekitaldia ere ez zen urteroko berdina izan. Iker Muguruza eta Mikel Artolak eragindako txalaparta soinuek Aitziber Elortza, Garbine Erre-

kondo, Edurne Aizpurua eta Maritxu Martinen irrintzien laguntza izan zuten lehendabizi eta ondoren Kantabriatik etorri ziren 40 lagunetatik hiruk gaita, danborra eta panderoz alaitu zuten herriko frontoia. XX. Sagardo Eguneko lehendabiziko sagardo botella, berriz, Jose Ignacio Astiazaran Iruingo sagardogileak ireki zuen. Izan ere, Sagardo Egunaren Lagunak Elkartekoek 35 urte hauetan sagardoaren alde egin duen guztia eskertu nahi izan zioten omenaldi xume honen bidez.

Botatzaileen lehiaketak ere ikusmin haundia sortu zuen. Arantxa Unanue, Urko Manteola, Iker Muguruza, Kerman Errekondo, Dorransoro eta Jon Astiazaran izan ziren oholtza gainera igotzera ausartu ziren bakarrak eta epaimahaikoen eritziz Iker muguruza izan zen ondoen egin zuena. Kerman Errekondok eskuratu zuen bigarren postua eta Jon Astiazaranek hirugarrena.

Arratsaldean, aldiz, erromeri giroa izan zen nagusi. Herriko trikitalariei egokitu zitzaizen erromeria hasi eta bukatzea, baina tartean nahikoa dantza egiteko aukera izan zen Tapia eta Leturia eta beraien lagun-tzaileekin. Herritar nahiz kanpotarrek frontoia txiki utzi zuten. Batzuk dantzan, besteak dantzarietara begira... baina guztiak gustora



### ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapo txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburuko dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsonako)

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

### Kalkos kopisteria

- ☞ Fotokopiak
- ☞ Fotokopiak koloretan
- ☞ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ☞ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ☞ Planoen kopiak (AO arte)
- ☞ Ordenadoreko lanak
- ☞ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, jiburua)
- ☞ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea  
20160 Lasarte-Oria

Tel: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55



# 6 urte, 6 argazki eta dagoeneko 500 bazkide baino gehiago



## “Plis plas txalo ta jolas” egitaraua bere azken txanpan sartzen ari da

**O**raindik ez zarela egon “Plis plas txalo ta jolas” egitarauak aurtengorako antolatu dituen ekitaldietan? Ba, mugi ipurdiak! Izan ere, aurtengoa ere bukatzen ari baita. Zubietan, Aginagan eta Santuenean larunbat arratsalde atseginak igarotzeko aukera eskeini digu. Orain, Kalezarri dagokio txanda. Datorren larunbatean, hilak 2, Auskalo taldearen jokuak eta kontu kontalaria izango da ikusgai eta ekainaren 17an, igandean, Takolo, Pirritx eta Porrotxekin “Parrandan” ibiltzeko aukera izango dugu. Gainera, hau gutxi izango balitz, Kalezarko jai batzordeak txokolatada goxogoxoa prestatuko digu, bizkotxoak eta guzti! Beraz, ez hutsik egin eta zatoz gurekin ondo pasatzera.

## LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA  
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA  
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48  
Mobila: 609 888021




## TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak  
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13



**Ainhoa Azpiroz  
Eizmendi**



- Kazetaria
- Txistularia

## Nikaraguako bitxikeria bat

Orain dela lau hilabete egon nintzen Nikaraguan eta oraindik ere oroitzapenak frexko-frexko dauzkat. Gauza asko gogoratzen ditut, eta tartean bitxikeria pila bat. Horietako bat Nikaraguako helbideak. Bai, hango helbideak bereziak dira. Orain kontatuko dizuet.

Imajinatu herritar bati Usurbilgo hileriberria non dagoen esplikatu behar diozuela: *"Bordatxoko erro-tondatik Ageri aldera igo eta handik Arratzaingo bidea hartu. Dena gora segi eta Enbile-enea baino pixka bat aurrera dago, ezkerretara"*. Edo beste norbaiti tren gelto-  
kia non dagoen azaldu behar badiozue, horrelako zerbait esango diozue: *"Hemen frontoi atzetik kalean behera joan Patrineraino, bidea gurutzatu eta Etxealdiako aldapa jaitsi. Beheraino jaitsi aurretik eskuin aldetik segi eta oinezkoentzako zubia pasa errepide nagusia gurutzatzeko. Ondoren eskuin aldean ikusiko duzu"*. Beste batek galdetzen badizue herriko hurrengo etxebizitzak non egingo dituzten esplikazio hau eman diezaiekezue: *"Artzabal baserria, Puntapax erreka, Arriate etxea eta honen aldamenan dauden etxeen artean dagoen zelaian"*.

Halere, etxe horiek helbideren bat edukiko dute, beste guztiek daukaten antzera: Galtzaragaña, Eguzkitzaldea... Edo kalei izena jarriko zaie: Alperroburu, San Esteban bidea eta abar dauzkagun bezala.

Alegia, esplikatzera erabiltzen ditugun erreferentziak ez dute balio etxe hoerietara gutunen bat

bidali behar badugu. Gauza bat da esaten duguan, eta beste bat idazten duguna; kalekoa eta ofiziala, esango genuke.

Bada, Nikaraguan ez dago diferentzia hori; esaten den bezalaxe idazten da. Adibidez, Somoto herriko lagunaren helbidea hau da: *Del Estadio de Santiago una cuadra al este y media al Sur, Sector 10, Somoto, Nikaragua*. Managua egon ginen etxeko helbidea honakoa zen: *Altamira d'Este de la Viky, 75 baras arriba, pedago a la pasteleria alemana, nº 187*.

Horrelako helbideak erabiltzen dituzte. Txartel pertsonaletan ere horrela agertzen da izena, telefonoa eta posta elektronikorekin batera. Adibidez, Carlos Mejía Godoy-ren fundazioko txartelean zera jartzen du: *La casa de Los Mejía Godoy, Colonial Los Robles, Shell Plaza El Sol, 2 cuerdas al Sur*.

Hiriburuan taxi bat hartzen baduzue ere hala esan behar zaio: *Reparto Rubenia, Casa F23, De los semaforos de Rubenia 1 cuadra al lago, 1 1/2 arriba*. Badi-rudi, ez direla oso erreferentzia zehatzak, baina bai, hala dira. *1 cuadra al lago* esan beharrean *al sur* esaten badiozu taxistari, akabo! Ez zara iritsi behar duzun lekura ailegatuko!

Egia esan, hori hemen ere gertatzen da. Atxega jauregia non dagoen esplikatzeko diogunean kanpotar batzuei eta Zumartegira sartu beharrean berriz ere errepide nagusira ateratzen direla ikusten dugunean...



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43



Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60

- ✓ Pintxoak
- ✓ Eguneko menuak
- ✓ Bokatak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Razioak, .

**P A T R I**  
J A T E T X E A  
Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil  
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



## Lehiaketa



**Zein dira argazki honetan agertzen direnen izen-abizenak?**

**Izen-abizen gehien asmatzen dituztenen artean Antxeta tabernan bi pertsonentzat afaria zozketatuko dugu**



Enbilleneatarren omenezko orri-garri hau Irisasi mendian dago, Iria gailurreko buzoiaren ondoran hain zuzen ere.

**Irabazlea**

**Ander Orena**

**Saria**

**Bordatxo tabernan bi pertsonentzat afaria**

## Esanak esan

### Moztu

- \* Ura **moztu** dute
- \* Hitza **moztu** didate
- \* Argia **moztu** dute
- \* Telefono-deia **moztu** zait
- \* Bidea **moztu** dute

- Ura **kendu** dute
- Hitza **kendu** didate
- Argia **kendu** dute
- Telefono-deia **eten** zait
- Bidea **itxi** dute

\* Okerrak edo desegokiak

Gaztelaniaren "cortar" aditza hau, kalokoz kalko erabiltzen ari gara euskaraz; halakoetan, badirudi, guraizeak eskuan ari garela hitz egiten: dena moztu beharrean, ezer moztekorik gabe.

Saia gaitezen, bada, zehaztasunez mintzatzen eta hitz egokiak erabiltzen. Besterik gabe, agur eta hurrengo arte

**MIKEL  
IZAGIRRE**

**ELEKTRIZITATEA**

Goiz Argi etxea, 37  
Kalezar  
Telf: 943 36 05 95

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

**JOSUE  
ARANZAZISTROKI**

**IGELTSERITZA  
eta  
PINTURA**

Juan Jose enea. 6 Telf: 943 36 05 50  
Kalezar 606 37 21 05

## EKAINAK 2 larunbata

- Plis, plas, txalo ta jolas egitarauarekin jarraituz **jokoak eta ipuin kontalaria Auskalo taldearen eskutik** kalezarren. Arratsaldeko 17.00etatik aurrera.

## EKAINAK 3 igandea

- **Udarregi kastolaren eguna**  
9.00etan txistulariekin **esna-deia**.  
9.00etatik 11.30etara **LH eta DBHko ikasleen jokoak**.  
11.00etatik 13.00etara **HH, LH eta DBHko ikasleen eskularen erakusketa** ikastola berrian.  
12.00etatik 13.00etara **HHko haurren "Garraioak" emanaldia**.  
14.00etan **Herri bazkaria** frontoian. Ondoren trikitilariak.

## EKAINAK 4 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa**. Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

## EKAINAK 4 astelehena

- **Ramon Uribe kalezartara presoaren egoera azaltzeko hitzaldia** izango da Peña Pago-

la elkartearen arratsaldeko 19.30etan.

## EKAINAK 11 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa**. Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

## EKAINAK 16 larunbata

- **Kray taldearen kontzertua Txurru tabernan** gaueko 22.30etan.

## OHARRAK

- ✍ Bi pertsona behar dira Etxealdiako pisu bat alokatzeko edo alokairuko beste pisu bat neska bat sartzeko. Interesatuak deitu 943 36 02 17 edo 669933626 telefonoetara. (Erkuden eta Jaione)
- ✍ Neska eskaintzen da udaran haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 36 43 11 telefonora.
- ✍ Mahaspildegi elkartearen bazkide postua salduko nuke. Telf. 943 365231.
- ✍ Chow chow arrazako txakurrak salgai. Pedigriarekin. Harremanetarako deitu 943 362072 telefonora.
- ✍ Banaketarako furgoneta isoterma bat aukeran. Lanerako aukerarekin ere saltzen da. Telf. 606060322.

✍ Belar bolak egiteko belarra eskaintzen da garbitze aldera Kalezarren. Interesatuak deitu 6306 47119 telefonora (Iñaki).

✍ Urrezko pultsera bat galdu nuen herrian pasa den maiztaren 16an. Aurkitu duenak deitu 943 36 38 22 telefonora.

✍ Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Deitu eguerdian 656719442 telefonora.

✍ Munalurran garaje bateko marra saltzen da. Deitu 943 362424 telefonora.

✍ Txinperta sagardotegian jendea behar da, ahal bada esperientzia duena, barran edo jangelan lan egiteko. Kurrikulumak Txinpertan utzi.

✍ Maixu etxean dagoen piper zentruan udan hiru hilabetez lan egiteko jendea behar da. Interesatuok azaldu bertara ekainaren 11, 12 edo 13an 9.00etatik 12.00etara edo deitu 943 363958 telefonora.

✍ Gitarra española bat dut salgai. Admira Juanita marka. Ehun bikoitzekoa eta forraturiko forro beltzarekin. Ia erabili gabea, oso egoera onean dagoena. Prezioa: 16.000 pezeta. Telf. 678 375 390.

## PELOTA FESTAKO EGITARAUUA:

### Ekainak 9, larunbata

- Goizeko 10:30etan haurren pelota jaia
- 17:00etatik aurrera pelota partidak:
  - \* Xare partida: IRURAKO pelotariak
  - \* Paxaka partida: BAZTAN BAILARRAKO pelotariak
  - \* Zesta punta partida.
- 22:30etan:
  - \* Joko Garbi partida: ZUBIETA ELKARTEKO pelotariak
  - \* Helduen eskuzko pelota partidak:
    - + ERROIZENEA-ARGOTE/ DOMINGUEZ-RUIZ
    - + ERRASTI ANAIAK/ HUIZIBENGOETXEA

### Ekainak 10, igandea

- Goizeko 10:30etan pala partida mixtoa
- Ondoren hamaiketako eta trikitilariak: Noaua! eta Tabernarien Elkartea eta Udalaren partetik
- 12:00etan bertso pelota: bertsolarien eta usurbildarren arteko lehia
  - \* Bertsolarien aldetik:
    - + XABIER LEGARRETA/ MIKEL MENDIZABAL
    - + Botilero: JESUS MARI IRAZU
  - \* Usurbildarren aldetik:
    - + PAULINO IBARGOEN
    - + UNAI LOIDI
    - + Botilero: IBAI ESOAIN
  - \* Epaile nagusia: XABIER SUKIA

**OHARRA:** Larunbat arratsaldean eta igande goizean PELOTA ERAKUSKETA (artisautza, eskulturak, argazkiak...)

## Parisera martxa

**Ekainaren 9an frantziar estatuko espetxeetan euskal preso politikoen egoera salatzen duen martxa izango da Parisen. Martxa horretara joateko autobusa antolatu da Usurbilen. Ekainaren 8an irtengo da eta Aitzaga tabernan duzu izena emateko aukera**





USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA



USURBILGO LANBIDE ESKOLA  
I.E.F.P.S. USURBIL GLHBI



ISO 9002



**ESKAINITZA  
AKADEMIKOA**

✗ Erdi mailako  
heziketa zikloak

✗ Goi mailako  
heziketa zikloak

\*Donostiatik 13 minutura

\*Eskola autobusa

\*Lasarte-Oriaino Trena

\*Interneteko gela

\*200 entrespa praktikak egiteko

\*LANGAI zentro kolaboratzailea

Arbitza bidea, 29 (Zubieta auzoa)

tef 943 36 46 00 - 20170 Usurbil

E-mail: eskola2@lhusurbil.com

**AURREINSKRIPZIOAREN EPEA. ekainaren 1etik 12ra**

UDARAKO GOIZAK ONDO PASATZEKO...

**UDAJOLAS 2001**

**USURBIL**

**ORDUTEGIAK**

Goizez;

9:30- 13:00

**IZENA EMAN NAHI BADUZU , DEITU TELEFONO HONETARA:**

**943 37 32 95 arratsaldez**

**Izena emateko azken eguna ekainaren 27a**

**Arduradunak pedagogoak eta monitorea esperientziadunak  
izango dira**



**UDAJOLAS**

✗ UDA TXIKI ( 4-5 ) urte  
adin honetara egokitutako erakundeak

✗ UDA ERDI ( 6-7 ) urte  
egunero joku ezberdin bat:  
espaziora bidaia, munduari itzulia,  
asterix eta obelix...

✗ UDA GAZTE ( 8-11 ) urte  
es. urtsio bat, bizikletan ibili, eskalatu

✗ UDA JOKU ( 12 urte )  
egunero abentura ezberdin bat

**TXANDAK**

**1goa Uztailaren 3tik- 13ra**

**2.a Uztailaren 16tik- 30era**

**3.a Abuztuaren 1tik- 14ra**

**4.a Abuztuaren 17tik- 21era**





Txaro Artze Ileapaindegia

Buru-azalaren zainketa eta Ile-apainketa

Etxebeste, 3 Telf: 943 37 16 85



**ESTETIKA ZENTROA**

Muna Lurra,2 Telf: 37 04 62

- ✕ Tatuaiak
- ✕ Betileen trukaketa, permanentea
- ✕ Estetika
- ✕ Solariuma



Ileapaindegia  
MISTOA

- ▷ SOLARIUMA ▷ MAKILAJEA
- ▷ DEPILAZIOA ▷ MANIKURA

**Telf: 943 36 19 51**



Telf: 37 05 49

Nagusia, 44  
20160 Lasarte-Oria

- Depilazioa: argizari beroa eta hotza
- Depilazio elektrikoa
- Aurpegi-rako trata-
- menduak
- Masaje korporala
- Makilajea
- Manikura
- Pedikura
- Solariuma



**Intza ileapaindegia**

- Ileapaindegintza
- Manikura
- Pedikura
- Depilazioak
- Masajeak

Telf: 943 36 36 41

%10 ko beherapena 25 urteko beherako gazteei eta Noauako bazkideei!

**Manoli Ileapaindegia**

Ileapaindegintza  
Ilerako tratamenduak

Zubiaurrenea, 10- 2.ezk- 3. atea

Telf: 943 37 13 14



**Maria Jesus  
Elexpe**

**G**aur egun estetika mundua, urte batzuekin alderatuz, ez da soilik ileapaindegietara mugatzen. Egun orrazkeraz, depilazioaz eta aurpegiko garbitasunaz gain, beste hainbat aukera eskeintzen dizkigu; horietako bat, tatuaiak.

Gaur egun tatuaiak estetika munduan modan jarri da. Hala ere, egia da jendeak oraindik ere beldurra baduela tatuaiak egiterako orduan. Baina, egun lasai ibili gaitzake, izan ere, segurtasun neurriak oso zorrotzak baitira; esaterako, beti jostorrazak aldatu egin behar dira eta pertsona bakoitzeko jostorrazak berriak erabiltzen dira edozein infekzio sahiestu ahal izateko.

Tatuaiak egitea oso lan polita da. Azken finean, azala marrazteko aukera ematen du eta gaur egun mota eta itxura askotakoak egin daitezke; gustoko dugun tamainakoak egin daitezke eta nahi adina kolore erabili ere.

Era berean, tartetxo honetaz gozatu nahiko nuke hainbat aholku emateko. Tatuaiak garbituta eduki behar da une oro eta tatuaiak egin berria bada, lehen hamabost egunetan estalita egon behar du, eguzki-izpirik hartu gabe. Gainera, oso kontutan izan behar da non egiten den tatuaiak, izan ere, edozein gorputz atal ez baita egokia tatuaiak egiteko. Zona horretan nerbioren bat egonez gero, mina sor dezakeelako.

Bestalde, udara ere ate joka dugunez, betazalei buruz ere aholku batzuk eman nahiko nituzke. Udararako oso eroso da betazaletan permanentea egitea eta tintea ematea. Sistema honekin hiru hilabetetan zehar ez daukagu betazalak kixkuritzen eta tintatzen ibili beharrik, eta, gainera, udarako oso eroso da urarekin ez baita tintea zabalitzen.

Estetikaren inguruan zalantzaren bat argitu nahi baduzu, Noaua!ra ekarri eta herriko edozein adituk azalduko dizu hurrengo aldizkarian. Galdetu erreparorik gabe!